

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 10/2014

OSAKIDETZA - EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO (...) SINDIKATU-ORDEZKARITZAK JARRITAKO SALAKETA EZ ONARTZEA. SALAKETA HORI (...) ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO (ESI) ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN ETA PERTSONALEKO ZUZENDARIAREN AURKA JARRI ZUEN, AIPATUTAKO ERAKUNDEAN PERTSONALEKO ZUZENDARIORDE LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDI PUBLIKOA IZAPIDETZEAN IZANDAKO JOKABIDEA DELA-ETA.

1.- 2014ko (...) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu zen (...) ESiko zuzendari kudeatzailearen (...) Ebazpena, aipatu unitatean pertsonaleko zuzendariorde lanpostu bat izendapen askeko prozeduraren bidez hornitzeko prozesuaren deialdia egitekoa, eta adierazten zuen deialdiaren oinarriak *Osakidetza*ren webgunean argitaratuta zeudela.

Deialdiaren oinarrien lehenengo puntuak, parte hartzeko eskakizunei buruzkoak, adierazten zuen parte hartzeko aukera zutela *Osakidetza* - Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (estatutupekoek, funtzionarioek, edo lan-kontratudunek), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioek, bai eta beste langile batzuek ere, baldin eta deialdiaren puntu bereko hurrengo paragrafoetan adierazitako gainerako eskakizunak betetzen bazituzten.

2.- 2014ko irailaren 4an, (...) sindikatu-ordezkaritzak Zuzenean - Eusko Jaurlaritzaren herritarrentzako zerbitzuan erregistratu zuen Etika Publikorako Batzorde honi zuzendutako idazkia (aurrerantzean, EPB). Idazkiari erantsi zioten *Osakidetza* - Euskal Osasun Zerbitzuko (...) sindikatu-ordezkaritzak (...) ESiko pertsonaleko zuzendariaren eta erakunde bereko zuzendari kudeatzailearen aurka jarritako salaketa, Administrazio Publikoarekin lotura iraunkorrik gabeko langile bati esleitzeagatik ESiko zuzendaritzak deitutako pertsonaleko zuzendariorde eginkizunetarako postua. Idazki horrek eskatzen zuen salaketa onartzea eta atxikitako salaketan deskribatutako gertaerak ikertzea.

3.- Salaketak adierazten duenez, ESiko zuzendari kudeatzaileak eta pertsonaleko zuzendariak ez zituzten bete Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodean jasotako printzipioak, edo haien kontrako jokabidea eta portaera izan zuten. Printzipio hauek dira, hain zuzen: osotasuna, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa, berrikuntza, inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari lotutako erantzukizuna, gardentasuna eta gobernatze irekia, eredugarritasuna, onestasuna eta zintzotasuna, eta errespetu instituzionala eta pertsonala. Hori guztia kontuan hartuta, EPBri eskatu dio *Osakidetza*ko zuzendari nagusiari proposa diezaiola [...] ESiko pertsonaleko zuzendaria kargutik berehala kentzea eta zuzendari kudeatzailea ohartaraztea.

4.- Salaketa oso zabala bada ere (salaketaren xede diren bi kargu publikodunek etika- eta jokabide-kodean ezarritako balio eta printzipio gehientsuenak urratu dituztela planteatzen du)

ia kasu guztietan, azken finean, gaitzespen bera dakarte: aipatutako hornikuntza-prozeduraren bitartez ez *Osakidetza*ko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoa (estatutupekoa, funtzionarioa, edo lan-kontrataduna), ez EAeko Administrazio Orokorreko funtzionarioa, ez eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioa ez den pertsona bat pertsonaleko zuzendariorde gisa jardutea, deialdiaren ostean postua bete gabe utzi beharrean.

Dokumentuaren azaleko irakurketa nahikoa da konturatzeko gaitzespen hori –beti berdina– erruz ageri dela salaketaren hiru orri eta erdi horietan: finkoa ez den pertsona bat pertsonaleko zuzendariorde gisa jarduten uztea, onestasan-printzipioa urratuz eta arduragabekeriaz jokatzuz [...] kontuan hartuta sindikatu-ordezkaritza honek jakinarazi zuela pertsona hori ez zela langile finkoa; lotura iraunkorrik gabeko pertsona bati pertsonaleko zuzendariorde gisa jarduten uztea; langile finkoa ez den pertsona bat proposatzea zuzendaritzari, karrerako funtzionarioentzat gordetako izendapen askeko postu bat betetzeko; egokia zen postua hutsik uztea, langile finkoak aurkeztuta ere, pertsonaleko zuzendariaren konfiantzarik ez badute; Administrazioarekin lotura iraunkorrik gabeko pertsona batek karrerako funtzionarioentzat gordetako postu bat bete dezan uztea; Administrazioarekin lotura iraunkorrik gabeko pertsona batek ESiko zuzendaritzan sortu berria den eta karrerako funtzionarioentzat gorde beharrekoa den postu bat bete dezan uztea; finkoa ez den pertsona bati pertsonaleko zuzendariordearen postuan jarduten uzteak eredugarritasun-irudia kaltetzen du.

5.- Salaketak barnean hartzen ditu aurreko puntuan adierazitakoak ez bezalako gaitzespen batzuk ere, baina guztiek aipatzen dute, salbuespenik gabe, zuzenean edo zeharka, oinarrian dagoen gertaera berbera, sinatzaileen iritziz EPBri helarazitako urraketa hauen guztien iturburu dena: behar ez bezala justifikatutako erabakiak hartzea; gogo beroa, inplikazioa, eraspena eta leialtasuna piztuko dituen giro egokia sortzeko aukerarekin talka egitea; langileak hautatzeko prozesuaren emaitza hobetzeko aukera galtzea, esparru juridikoari egokitzuz gero sistemak sinesgarritasuna eskuratuko baitzuen; ESI osasun-erakunde berriaren ospea, duintasuna edo erakunde-irudiaren kalterako izan daitekeen, maila txikian bada ere, edozein ekintza edo ez-egite ez eragozte; ebazpena informazio fede-emailean (txostenak, azterlanak, proiektuak edo irizpenak) eta datuen analisi objektiboan ez oinarritu izana; lideratzen duen sailaren etengabeko hobekuntza helburu duen ahaleginean jarduteko eginbidea ez betetzea; informazioa ez partekatzea eta horrenbestez eginkizunak elkarrekiko leialtasunean eta lana konfiantza-giroan egitea eragozte; pertsonala hautatzeko prozesu hori kudeatzeko moduan aldaketak ez proposatzea, eta horrenbestez prozesu gardena eta esparru juridikoaren araberakoa egiteko aukera bikaina alde batera uztea; herritarrei zor zaien arreta eta begirunea ez ematea sustatzea, salatutako gertaeren berri izanez gero zegoen eskaera egiteko aukera izango baitzuten; gardentasunaren bidez herritarrengan konfiantza sortzeko eginbidea ez betetzea, eta erabakiak arrazoituta, ezagueraz eta objektiboki hartzeko eginbidea ez betetzean ere konfiantzarik ez sortzea.

6.- (...) EHAAan argitaratu zen ESiko zuzendari kudeatzailearen iragarkia, erakunde horretan pertsonaleko zuzendariorde postu bat izendapen askez esleitzeari publizitatea emanez.

7.- Planteatutako salaketa horren azterketa behar bezalako zorrotasunaz egite aldera, EPBren idazkaritzak 2014ko irailaren 25ean idazki bat igorri zuen ESira, *Osakidetza*ko (...) sindikatu-

ordezkaritzak aurkeztutako salaketaren berri emanez eta egiaztapena eskatuz, honako xehetasun hauei buruz:

- 1.- Deialdian lehiatu zuten langile finkoen kopurua, eta hornikuntza-prozesuan parte hartzean gertatutako uko egiteak, halakorik balego.
- 2.- Hizpide dugun postua betetzeko hornikuntza-prozesua amaitu ostean izendapena egiteko emandako ebazpena, egindako izendapenaren izaera, eta izendatutako pertsonak *Osakidetza* erakunde publikoarekin duen zerbitzu-harremanaren izaera.

8.- Urriaren 15ean, ESik erantzun zion EPBren eskaerari, eta idazkaritzari dokumentu batzuk helarazi zizkion, honako xehetasun hauek egiaztatzen dituztenak:

- a) Salaketan aipatutako deialdian hiru pertsonak lehiatu zuten: *Osakidetza*ko langile finko batek, erakunde bereko bitarteko langile batek, eta erakunde publikoarekin loturarik gabeko hirugarren batek.
- b) Lehenengoak, uztailaren 4an sinatutako adierazpenaren arabera, eskabide aurkeztu ondoren, ESiko pertsonaleko zuzendariarekin egindako elkarrizketetan jakinarazi zion izendapen askez esleitzeko hornikuntza-prozesu horretan parte hartzeari uko egingo ziola. Eta uko egin zion, hain zuzen, uztailaren 4an bertan egindako idazkiaren bidez.
- c) Ekainaren 13ko 475/2014 Ebazpenaren bidez, ESiko zuzendari kudeatzaileak, eskabideak balioesteko eraturako batzordeak egindako izendapen-proposamena ikusita, eta aipatutako bigarren pertsonak, bitarteko harremanaren bidezko lotura duenak, biltzen dituen ezagutza akademiko eta profesionalak aintzat hartuta, deitutako postua esleitzea erabaki zuen, eta izendapena egin zen.

9.- *Osakidetza*ko (...) sindikatu-ordezkaritzak aurkeztutako salaketa dela-eta ESik EPB honi igorritako dokumentazioak honako gertaera hauek adierazten ditu:

- a) Pertsonaleko zuzendariorde postu bat betetzeko beharra ikusita, berriazko deialdi bat egitea erabaki zen, izendapen askearen prozedura baliatuta. Deialdian parte har zezaketen *Osakidetza*ko langile finkoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioek, bai eta beste langile batzuek ere, baldin eta deialdiaren gainerako eskakizunak betetzen bazituzten.
- b) Deialdiak berriaz bideratzen zuen *Osakidetza*ko langile finkoak edo EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioak ez ziren langileek ere hornikuntza-prozesuan parte hartzea, kasuan aplikatu beharreko arauen araberrako lehentasunetan langile-mota bakoitzari eman beharreko tokiaren kalterik gabe.
- c) Hornikuntza-prozesuan *Osakidetza*ko langile finko bakar batek parte hartu zuen, eta parte hartzeari uko egin zion gero. Dena dela, uko egite hori ahoz adierazi zuen, eta ez zen idatziz jaso 2014ko uztailaren 4ra arte. Ordurako deialdiaren erabakia emana zen jada eta bitarteko funtzionarioa den pertsona bati esleitu zitzaion postua.

10.- *Osakidetza*ko (...) sindikatu-ordezkaritzak egindako salaketa-idazkiak EJKren balio eta printzipioen zerranda luzea egiten badu ere –hornikuntza-prozesua kudeatu duten kargu

publikodunek urratu dituzten printzipio eta balioak, idazkiaren egileen iritziz– kontua da benetan zalantzan jartzen den gertaera bakarrak –deitutako postua betetzeko langile finkoa ez den pertsona bat izendatu izana– ez duela inolako loturarik aipatutako Kodearekin; izan ere, Kodeak ez du ezer ezartzen EAEko Administrazio Orokorra eta Instituzionalak lanpostuak hornitzeko deitutako prozesuetako izangaiek bete beharreko eskakizunei buruz. Aitzitik, salaketan adierazitako gaitzespenek eragiten die lanpostuak hornitzeko administrazio-prozesu baten garapenarekin lotutako legezketasun materialari eta prozedurazko legezketasunari buruzko gaiei.

11.- 8/2014 Erabakian nabarmendu genuen bezala, EPB honi ez dagokio administrazio-jardueraren legezketasunari buruzko epaiak ematea. Izan ere, EPB honen eginkizuna da irizpena ematea EJKrekiko borondatezko atxikimendua formalizatu duten kargu publikodunek eta antzekoek Kode hori betetzen ote duten argitzeko. Epailleek eta auzitegiek ebatziko dute, hala badagokie, Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunen jardunak antolamendu juridikora egokitzen diren, batzorde honek jardun horiek EJKren aurreikuspenekin bat datozela erabaki edo ez. Horrek ez du esan nahi, ordea, legea betetzeak ez duela zerikusirik kargu publikodunen jokabide etikoarekin. Aitzitik, legea betetzea oinarritzeko arau etikoa da, kargu publikodun orok bete beharrekoa. Arau hori urratzen da, EPB honek aintzat hartzen dituen ondorioetarako, araubide juridikoa ezagueraz, nahita eta nabarmen urratzen denean soilik, mendetasunaren ukatze ageri eta eztabaiaezina adierazten duen jarrera adierazita.

12.- EPB honen eginkizunen eremutik kanpo dauden legezketasun-alderdiak aztertzen hasteko premiarik gabe, EPB honen iritziz, salatutako deialdiaren klausula batean *Osakidetza*ko langile finkoak ez diren beste langile batzuei parte hartzeko baimena berariaz ematen zaienez, baldin eta deialdiaren gainerako eskakizunak betetzen badituzte, alde batera utzi behar da hipotesi hau: sindikatu-erakunde salaztaileak egindako gaitzespen bakarra –*Osakidetza*arekin harreman iraunkorra ez duen pertsona bat pertsonaleko zuzendariorde izendatzea eta jardun horretan aritzea bideratu izana– araubide juridikoa ezagueraz, nahita eta nabarmen urratzearen ondorio izatea, mendetasunaren ukatze ageri eta eztabaiaezina adierazten duen jarreraren adierazpen gisa.

13.- 5/2014 Erabakian, halaber, erabaki genuen lanpostu bat hornitzeko izapideetan kargu publikodun batek egindako jarduerekin lotutako salaketa bat ez onartzea, honako hau argudiatuta: salaketan ez ziren identifikatu gaitzespenaren xede ziren goi-kargudunak edo parekatuak, eta haiei egotzitako guztia administrazio-jardueraren balizko legezketasun ezari buruzkoa zen. Dagokigun kasuan, salaketak argi eta garbi identifikatzen ditu salatutako gertaeretan jardundako kargu publikodunak, baina –araubide juridikoa ezagueraz, nahita eta nabarmen urratu izana, mendetasunaren ukatze ageri eta eztabaiaezina adierazten duen jarreraren adierazpen gisa, gertatu ez dela ikusita– egiten zaien gaitzespen bakarra administrazio-legezketasunaren eremuko da hertsiki. EJKn adierazitako printzipio eta balioen aipamen etengabeak ez digu nahasterik eragin behar, eta ez du ezkutatu behar salaketa guztiaren oinarrian dagoen gaitzespen bakarra araubide juridikoa zorrotz betetzeari dagokiola, eta horrek EPB honen ezagueraren eremua gainditzen duela.

Hori guztia dela-eta, EPB honek erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Berrito adierazi behar dugu Batzorde honen jarduera-eremu objektiboaren ardatza dela soil-soilik jarduera-eremuko pertsonen jardunaren tratamendu etikoa; hau da, EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena.

Bigarrena.- *Osakidetza* - Euskal Osasun Zerbitzuko (...) sindikatu-ordezkaritzak (...) ESIⁿ pertsonaleko zuzendariorde postua betetzeko prozedura dela-eta ((...) Ebazpena, (...) EHAAn argitaratua) erakunde bereko zuzendari kudeatzailearen eta pertsonaleko zuzendariaren jokabidearen aurka jarritako salaketa ez onartzea; izan ere, EJKren balio eta printzipioen aipamen formaletik harantz, prozedura horren izapideetako balizko lege-irregularitasunak dira salaketaren muina, eta ez EJKri atxikitako kargu publikodunek Kodea urratu izana.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 10a